Este Parlamento vascongado en el que hablamos hoy está muy alejado de los verdaderos problemas y preocupaciones, sufrimientos, luchas y esperanzas de la ciudadanía vasca. Está muy lejos de la voluntad del pueblo vasco, y sois vosotros quienes profundizáis ese alejamiento. ¿Acaso no es cierto que convertís en papel mojado todo lo que aquí se decide? ¿En qué quedaron aquellas declaraciones solemnes sobre la autodeterminación que en su día hicisteis? Sepultadas por la práctica de vuestra sumisión y vuestra dependencia.

Gaur mintzatoki dugun Legebiltzar baskongadoa urrun dago oso euskal hiritarren benetako arazo eta kezketatik, sufrimendu, borroka eta itxaropenetatik. Oso urrun dago euskal herriaren nahietatik, eta zeuok areagotzen duzue urruntasun hori. Ez al da, bada, egia lastozko su bilakarazten duzuela hemen erabakitzen den zernahi gauza? Zertan gelditu dira behinola autodeterminazioaren gainean egin zenituzten aldarrikapenak? Lurperatu egin dituzte zuen esanekotasun eta menpekotasunak.

Vosotros habláis aquí de una manera, para la galería, pero actuáis en sentido contrario. Aquí habéis tomado, por ejemplo, dos declaraciones solemnes por la despenalización de la insumisión y contra los castigos a insumisos en marzo del 93 y marzo del 94. Pero luego mandáis a los ertzainas a detener a insumisos y a golpearles. Ésa es vuestra forma de actuar. También hay alternativas a eso: conseguir una democracia participativa, donde los políticos no sean una casta, donde las decisiones sean realmente colectivas y sociales.

Hemen jendaurrean modu batera hitz egiten duzuen arren, kontrakora jokatzen duzue gero. Hemen eginak dituzue, esate baterako, jendaurreko bi adierazpen, intsumisioa zigorgabetzearen aldekoa bata, 93ko martxoan, eta intsumituak zigortzearen kontrakoa bestea, 94ko martxoan. Gero, ordea, ertzainak bidaltzen dituzue intsumituak atxilotu eta kolpatzera. Horrela jokatzen duzue zuek. Horrek badu, alabaina, alternatiba: parte hartzezko demokrazia, non politikoek halako kasta bat osatuko ez duten eta erabakiak egiazki denon artean hartuak, gizarteak hartuak izango diren.

Vosotros hacéis secretos y levantáis muros en todas partes. Habéis negociado en secreto este Gobierno tripartito, os reunís en mesas secretas en Ajuria Enea para organizar planes represivos, dificultáis el acceso del pueblo a foros como éste. La alternativa es terminar con el secretismo y con el estatus de privilegio de los responsables políticos e institucionales. La alternativa es una sociedad vasca desmilitarizada y desburocratizada.

Sekretupean aritzen zarete zuek eta nonahi eraikitzen dituzue harresiak. isilpean negoziatu duzue hiruko Gobernu hau, isilpean biltzen zarete Ajuria Enean errepresio-planak antolatzeko, oztopoak jartzen dizkiozue herriari hau bezalako biltokietara etortzeko. Horixe da alternatiba, sekretismo horri eta arduradun politiko eta instituzionalen abantailazko estatusari akabu ematea, hain zuzen ere. Euskal gizarte desmilitarizatu eta burokraziarik gabea, horra alternatiba.

Gure alternatibak aurkezten ditugu euskal politikaren egunez egunekoa partehartzailea izateko, garrantzizko erabakiak langileon, emakumeon, gazteriaren interesetik kanpo hartuak ez izateko. Dinamismo-froga haundiak eman dituen herri honen protagonismoa berreskuratu nahi dugu. Betidanik bere burua antolatzen jakin izan duen gizarte baten energia guztiekin kontatzen dugu, elkartasuna zer den praktikarekin ikasi duen herri batekin. Gurekin badaukagu ejerzitoei laguntza ematea errefusatzen duen gazteria, nahiz eta ordain pertsonala oso altua izan, eta, ordea, inolako zalantzarik ez daukana lanerako lehenengo lerroan jartzeko orduan. Badago gure artean herri langile bat, bere esfortzu guztiak eskaini dituena oparotasun eta giza justizian oinarrituriko gizartea eraikitzeko.

Nuestra alternativa posibilita que la política vasca, la que se hace día a día, sea participativa y que las decisiones importantes no se tomen ignorando los intereses de los trabajadores, de las mujeres y de la juventud. Queremos recuperar el protagonismo de este pueblo, de este pueblo que ya ha dado excelentes muestras de dinamismo. Contamos con toda la energía de una sociedad que ha sabido autoorganizarse, la energía de un pueblo que ha aprendido lo que es la solidaridad poniéndola en práctica. Tenemos una juventud que se niega a colaborar con los ejércitos, a pesar de tener que pagar un precio muy alto por ello; una juventud que, sin embargo, no duda en ponerse en primera línea cuando de trabajar se trata. Tenemos un pueblo trabajador que ha encaminado todos sus esfuerzos a conseguir una sociedad basada en la prosperidad y en la justicia social.

Tenemos todo eso en nuestra propia casa, pero vemos con profunda tristeza que aquí muchos de vosotros os habéis empeñado en echar por la borda los mejores valores de nuestra gente. Habéis sustituido el valor de la honradez y la solidaridad por la corrupción, de la que el candidato ha hecho abstracción en su discurso a pesar de que ésta es práctica habitual en algunas instituciones e incluso ha salpicado a usted, señor Ardanza, y todavía estamos esperando alguna explicación.

Hori guztiori daukagu geure etxean, baina hara non ikusten dugun, damurik, zuetako asko gure jendearen balorerik onenak zapuzten lehiatu zaretela. Zintzotasunaren eta elkartasunaren lekuan ustelkeria jarri duzue, hautagaiak bere mintzaldian aipatzeke utzi duen ustelkeria, nahiz eta zenbait erakundetan eguneroko kontua den eta nahiz eta zu ere, Ardanza jauna, barne hartu zaituen, oraindik ere zure erantzunaren zain gaudelarik.

Se potencia el individualismo y desprecia el calor de una sociedad solidaria. Priman los valores del capitalismo salvaje frente a la justicia social, y, para vergüenza de muchos de vuestros mayores, se anteponen los intereses mezquinos de las camarillas dirigentes para vender a quienes con más convicción, tesón y entrega hemos dado lo mejor de nuestra vida a la idea de una patria vasca libre, de todos y para todos y todas.

Indibidualismoa sustatzen da eta elkartasunezko gizarte baten beroa mezpretxatzen. Lehentasuna ematen zaie kapitalismo basatiaren baloreei justizia sozialaren ondoan eta, zuen asabetariko askoren lotsarren, buruzagi-talde tipien zekenkeria nagusitzen da gu saltzeko, geure bizitzatik onena euskal aberri libre baten alde, denon eta denontzako aberri baten alde eman dugunok saltzeko.

Ezker abertzalearen izenean, toki itxi honetatik salto egin eta euskal gizarte osoari zabaldu behar diot nere deia: Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lan egin dezagun. Gure hiritarren lana eta borroka dira horretarako indar nagusia. Bai orain aurrean ditugun arazoei aurre egiteko, bai herriaren maitasuna abertzale eta gudari atxilotu, torturatu eta gartzelaratuei agertzeko, bai errepresioari aurre egiteko, dei zabala egiten dizuet datorren larunbatean arratsaldez Bilbon egingo den manifestaziora, erreprimituekin elkartasuna agertu, gure elkartasunaren babesa eman eta giza eskubideak aldarrikatzera joan zaitezten. Ez dut nik joaterik izango, baina jakin ezazue indarrez zigortzen gaituzten Espainiako eta Frantziako gartzela guztietan ere euskal preso politikoak zuekin batera ari garela Euskal Herri askatua eraikitzen. *(Aplausos.)*

Y ahora, en nombre de la izquierda abertzale y superando este foro cerrado, quiero hacer un llamamiento a toda la sociedad vasca para que trabajemos todos por la construcción de Euskal Herria. El trabajo y la lucha de nuestros ciudadanos constituirán la principal fuerza para ello. Para hacer frente a los problemas que tenemos delante, así como para mostrar el afecto de nuestro pueblo a todos los patriotas y gudaris detenidos, torturados y encarcelados, hago un llamamiento a todos para que el sábado que viene acudáis a la manifestación que se va a celebrar en Bilbao en solidaridad con los castigados por la represión y a favor de los derechos humanos. Yo no podré acudir a la cita, pero sabed que los presos políticos vascos castigados y encerrados a la fueza en las cárceles de España y Francia estamos trabajando junto a vosotros en

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Arrondo andrea.

Hurrengo Euskal Sozialistak Taldeko ordezkariak du hitza. Jáuregui jaunak du hitza.

El Sr. **JÁUREGUI ATONDO**: Señor Presidente, señorías. Quiero empezar diciendo que nuestra posición política al haber suscrito este acuerdo de gobierno con PNV y con Eusko Alkartasuna -lo digo de entrada y como el titular de mi intervención- es una apuesta por el país, es una apuesta por sacar al país adelante, por ir resolviendo los problemas en un país que tiene muchos y en un contexto extraordinariamente grave y preocupante en general.

Yo creo y creemos los Socialistas Vascos en las potencialidades, en las posibilidades, en la energía que tiene nuestro país. Pero creo que es imprescindible una dirección adecuada, una orientación conveniente a la política vasca. Nuestra presencia en este Gobierno es fundamentalmente la respuesta precisamente a ese objetivo. Creemos que hacemos mucho más por el país yendo a este Gobierno con PNV y con EA, después de una negociación ciertamente difícil, no plenamente satisfactoria, hacemos mucho más por lo que creemos que es la situación del país y su resolución, que quedándonos fuera del Gobierno o quedándonos cómodamente en la oposición.

Para hacer una explicación más detallada de cuál es el punto de vista del Partido Socialista sobre la situación, déjenme que les haga una referencia al contexto político, y económico también, en el que situamos al país, no solamente al País Vasco, obviamente también a España e incluso a la Unión Europea. Y también déjenme que les haga una reflexión subjetiva, evidentemente, de cuáles son en nuestra opinión los mensajes que el electorado vasco pudo darnos el pasado 23 de octubre.

En relación con lo primero yo no puedo eludir una sensación de enorme preocupación y de pesimismo general que está hoy en día instalada en todo el mundo y en todos los analistas respecto a cuál es nuestro próximo futuro. Quizás la única coincidencia que desgraciadamente existe, desde el punto de vista del análisis político y económico internacional, es que casi nadie sabe nada de cuál va a ser nuestro próximo futuro. Parece como si hubiera una costumbre en la historia de acercarnos a los fines de siglo bajo el signo de la crisis. Incluso con un cierto dramatismo cabría decir que nos acercamos al fin del milenio con una sensación de desconcierto y, por qué no decirlo, de desmoronamiento del orden existente.

Hace sólo cinco años vivíamos con emoción la caída del muro de Berlín y soñábamos con un nuevo mundo, pensando en el riesgo o la amenaza de la guerra nuclear que durante años había estado presidiendo la preocupación del mundo occidental, y hoy ese riesgo ha

la construcción de una Euskal Herria libre.*(Txaloak.)*

**LEHENDAKARI** jaunak: Muchas gracias, señora Arrondo.

A continuación, tiene la palabra el representante del Grupo Socialistas Vascos. Tiene la palabra el señor Jaúregui.

**JÁUREGUI ATONDO** jaunak: Lehendakari jauna, jaun-andreok. Hasteko, gure jarrera politikoa zehaztu nahi dut. EAJrekin eta EArekin gobernu-akordio hau sinatu dugularik, gure jarrera -nire mintzaldiaren sarrera edo izenburu gisa diot- herriaren aldeko apustua da, herria aurrera ateratzearen aldekoa, arazo asko dituen eta ingurune larri bezain kezkagarrian dagoen herri honen arazoak konpontzen joatearen aldekoa.

Nik badut fedea, eta Euskal Sozialistok badugu fedea herri honek dauzkan ahalmen eta indarretan. Ezinbestekoa dela uste dut, ordea, euskal politika egokiro bideratzea, bide onetik abiaraztea. Helburu horrixe erantzuteko gaude gu gobernu honetan. Askoz ere mesede handiagoa egiten diogu herriari, gure ustez, EAJ eta EArekin batera Gobernu hau osatuz, benetan negoziaketa zail eta ez guztiz asebetegarria eduki ondoren, askoz ere gehiago ematen dugu hala herri honek bizi duen egoeraren konponbidearen alde, Jaurlaritzatik irtenda edo eroso-eroso oposizioan geldituric baino.

Alderdi Sozialistak egoera nola ikusten duen zehatzago azaltzearren, zilegi bekit aipatzea zer ingurune politiko eta ekonomikotan kokatzen dugun gure herria, ez soilik Euskal Herria, baina ere Espainia, noski, bai eta Europako Elkartea ere. Eta zilegi bekit esatea, gisa berean, zein diren, gure ustetan, joan den urriaren 23an Euskal Herriko hautesleek eman zizkiguten mezuak.

Lehenengo puntuari banagokio, ezin esan gabe utzi kezka ikaragarria eta halako ezkortasuna somatzen dela gaur egun denengan, ikertzaile guztiengan, gure etorkizun hurbilaz denaz bezainbatean. Tamalez, nazioarteko politika eta ekonomi azterketaren ikuspegitik, gauza batean bakarrik dago adostasuna, zeren ia inork ere ez baitaki zer-nolakoa izango dugun etorkizun hurbila. Badirudi badela halako ohitura bat historian mendeak krisialdi batez bukatzekoa. Eta halako dramatikotasun apur batez hitz eginez, esan genezake noraezean bezala ari garela hurbiltzen mende bukaerara bai eta, ez dago zertan ezkutatu beharrik, gainbehera doala ezarritako ordena.

Oraintxe dira bost urte pozarren Berlingo harresia erortzen ikusi genuela. Mundu berri batekin egiten genuen amets, gogoan baikenuen urtetan zehar mendebalean izandako kezka nagusia, gerra nuklearraren arrisku edo mehatxua alegia, eta hara nola,

sido sustituido por guerras o por certezas de guerra convencional, pero no menos cruentas y terribles, en el propio corazón de Europa.

No me extenderé en la descripción catastrófica de nuestro entorno, pero cabe perfectamente que pudiéramos hacerlo si apelamos sencillamente a la observación de nuestro entorno más próximo, el europeo, y observamos guerras abiertas en los Balcanes y en las ex repúblicas soviéticas, riesgos mucho más preocupantes de guerra o de conflictos bélicos desde Ucrania a Turquía, pasando por el Mediterráneo, incógnitas gravísimas sobre el futuro de la Unión Europea, problemas evidentes de competitividad de toda nuestra industria, española y europea, presiones migratorias terribles desde el este y desde el sur y crisis sin precedentes en los sistemas políticos de todo el mundo occidental, también en el nuestro, también en el de España, que yo no quiero dejar de señalar como una crisis extraordinariamente importante. Pero permítame, señor Mayor Oreja: no tanto -en mi opinión- como para poder decir que es la peor crisis de la democracia española, porque por lo menos la visión subjetiva que yo tengo del 23 de febrero del año 81 hace pensar que aquélla fue sin duda una verdadera crisis de la estabilidad y del sistema democrático, cosa que sinceramente no creo que ocurra en este momento.

En este contexto, señorías, hemos oído algunos panfletos en las intervenciones de algunas personas, o hemos oído la nada, porque desgraciadamente tengo que decir que no hago una referencia a este contexto para situar nuestro discurso únicamente bajo el prisma de la responsabilidad, sino para extraer algunas conclusiones que mi experiencia política me sugiere debo decir aquí públicamente.

Primera, yo creo que no debemos perder la perspectiva histórica, señorías, y saber siempre de dónde venimos, lo que no tuvimos, lo que tenemos, lo que no fuimos, lo que somos, incluso dar un sentido de medio y largo plazo a nuestro quehacer político, no determinando nuestras decisiones políticas en función de una coyuntura, sino incluso dando la perspectiva de que estamos haciendo política para hacer un país sobre todo, creo yo, para nuestros hijos.

Dos, creo que es necesario decir hoy en este contexto y en esta coyuntura política de crisis que reitero y que reconozco que hay que mimar la democracia, mimarla, cuidarla, fortalecerla, porque, como decía recientemente Roca, que no se oigan ruidos de sable o que no haya una amenaza de golpe no quiere decir que no siga habiendo terribles amenazas para el único sistema de convivencia en libertad que ha inventado el hombre, que es la democracia. Y creo también que la conclusión que hay que extraer de este contexto es que es necesario recuperar una cierta política de pacto, recuperar una tendencia al diálogo y al consenso como base fundamental del quehacer político en este momento.

Esto en cuanto al contexto. Y en cuanto a lo que nos han dicho los electores aquí les reconozco,

gaur egun, arrisku horren ordez Europaren bihotzean benetako gerrak dauzkagun, ohikoak bezain odultsu eta ikaragarriak.

Ez naiz luzatuko gure inguruneko hondamendien xehetasunak ematen, nahiz eta horrelakorik egiteko arrazoirik falta ez den, zeren aski baitugu horretarako gure hurbileneko inguruneari, Europari, so egin eta ikustea Balkanetan eta errepublika sobietar izandakoetan egiten ari diren gerrak, Ukraniatik Turkiaraino gerrak pizteko dagoen areagoko arriskua, Mediterranioko egoera, Europako Batasunaren etorkizunari buruzko zalantza larri-larriak, gure industriaren, Espainiakoaren zein Europakoaren lehiakortasun arazo argi eta garbiak, ekialde eta hegoaldetikako migrazio-bultzada ikaragarriak eta mendabalde osoko sistema politikoak daudeneko krisia, lehenago inoiz ez ezagutua, baita gurea ere, Espainiakoa, nik ez baitut ukatuko berebiziko garrantzia duela sartuta gaudeneko krisiak. Baina ez dago esaterik, Mayor Oreja jauna, Espainiako demokraziak izan duen krisirik okerrena izan dela, zeren nire ustez behintzat 81eko otsailaren 23koa izan baitzen oreka eta sistema demokratikoa benetean kolokan jarri zituena, eta orain, egia esan, ez dut uste horrelakorik gertatzen ari denik.

Kontestu honetan, jaun-andreok, halako panfleto batzuk entzun dizkiegu hemen zenbaiti, edota ezereza entzun diegu, zeren tamalez esan behar baitut ez dudala kontestu hau aipatzen gure mintzaldian erantzukizunaren ikuspegitik soilik aritzeko, baina baita zenbait ondorio ateratzeko ere, nire esperentzia politikoak hemen jendaurrean esanarazten dizkidanak.

Lehenik, ez dugu sen historikoa galdu behar, jaun-andreok, beti jakin behar dugu nondik gatozen, zer izan ez genuen eta zer dugun, zer izan ez ginen eta zer garen, eta, areago, gure zeregin politikoak epe ertain eta luzera begirakoa izan behar du, ez halako koiuntura baten araberakoa; pentsatu behar dugu, bada, egiten ari garen politika, batez ere, gure seme-alabentzako herri bat eraikitzeko politika dela.

Bigarrenik, esan beharra dago nire ustez kontestu eta egoera honetan -eta berriz diot aitortzen dudala krisi politiko batean gaudela- demokrazia ondo zaindu behar dela, zaindu, indartu, zeren, orain dela gutxi Rocak zioenez, ezpata-hotsik ez entzuteak edo kolpe-mehatxurik ez izateak ez baitu esan nahi desagertu egin direnik gizakiak askatasunean elkar bizitzeko asmatu duen sistema bakar horrentzako, demokraziarentzako, mehatxu izaugarri horiek. Eta era berean uste dut kontestu honi buruz beste ondorio bat ere atera behar dugula: berreskuratu egin behar dugu hitzarmen-politika, elkarrizketarako eta kontsentsurako joera, horiek une honetako zeregin politikoaren berebiziko oinarri direnez gero.

Hori kontestuari dagokionez. Eta hautesleek esan dutenari buruz, aitortzen dut, noski, lehen esan bezala,

obviamente, una cierta visión subjetiva, como antes les decía, pero yo ¿qué interpreto que nos han dicho los vascos el pasado día 23? Entre otras cosas, una: que nuestro mapa político -creo que lo decía Mosquera- es el que es y su implantación territorial también, y que esto es una apelación al reconocimiento del pluralismo político y social del País Vasco. Creo que nunca se había expresado Euskadi de una manera tan nítida diciéndonos a los dirigentes políticos que somos así y que por tanto configuremos nuestras políticas en función de esa representación que nos han dado a cada uno de nosotros en la medida en que tenemos hoy esa representación.

Dos, que esa pluralidad nos va a exigir nuevos y múltiples esfuerzos para lograr equilibrios en lo territorial, en lo lingüístico, en lo cultural, por supuesto además de en lo político, que es lo que motivaba mi primera reflexión.

Y en tercer lugar, también interpretación subjetiva, que el conjunto de las llamadas fuerzas nacionalistas ha obtenido una representación en torno al 10 por ciento menor de la que tuvo anteriormente. Y yo creo que esto tiene que interpretarse como un mensaje en favor de la moderación ideológica incluso también en el seno de esa familia global del conjunto del nacionalismo.

De estas referencias a este contexto y a estos mensajes es de donde extraemos nuestra decisión política en favor de participar con un Gobierno estable y fuerte para el País Vasco. ¿Por qué? Pues porque están los tiempos muy difíciles. Y no quiero que ustedes hagan su propia broma: no para el Partido Socialista, para el país. Están muy complicados, en general, en un contexto que ya he citado y con un montón de incógnitas y de dificultades que no permiten soluciones que no lo son, como se han dado aquí, leyéndonos a veces planteamientos que han quedado ya absolutamente anticuados por su tono panfletario, absolutamente ajeno a lo que es el conjunto de las dificultades y de las realidades que determinan las soluciones a nuestros problemas.

Pues, bien, primera decisión, darle al país un Gobierno fuerte y estable como la única posibilidad de darle un buen rumbo y una buena orientación, condición básica en primer lugar. Y lo hemos hecho con quien podíamos hacerlo, con el Partido Nacionalista Vasco y con Eusko Alkartasuna. Y los Socialistas Vascos de esta manera vamos a un Gobierno porque creemos, como les decía antes, que nuestra presencia en él expresa el pluralismo político de esta Comunidad y conforma un Ejecutivo que responde mucho mejor a esas necesidades que antes les he citado. Mucho mejor que un Gobierno PNV-EA, que, claramente hay que decirlo, era la alternativa a la posibilidad de que el Partido Socialista no entrase en este Gobierno.

Queremos ser, por tanto, punto de equilibrio, de pluralidad y de moderación respecto a posiciones nacionalistas que no sean eso, plurales y moderadas. Y con nosotros, con los Socialistas Vascos, el nuevo Gobierno Vasco y el programa que lo sustenta es más fuerte, más estable, tiene más capacidad de perdurar, es

halako ikuspegi subjetiboa dela nirea, baina nik, nola ulertzen dut nik euskal herritarrek joan den hilaren 23an esan digutena? Gauza bat dakusat nik, besteak beste: gure mapa politikoa -Mosquerak zioela uste dut- den bezalakoa dela eta lurraldekako banaketa ere bai, eta horrek esan nahi duela onartu beharra dagoela Euskal Herria anitza dela politikoki nahiz sozialki. Uste dut Euskadik ez zigula behin ere hain argi azaldu gidari politikooi nolakoak garen eta, beraz, nola antolatu behar ditugun gure politikak, alegia bakoitzari eman diguten ordezkotzaren arabera.

Bigarrenik, aniztasun horrek eginahal gehiago egiteko eskatuko digula lurralde, hizkuntz eta kultur mailan oreka lortzeko, bai eta, nire lehen gogoetan nioenez, maila politikoan ere.

Eta hirugarrenik, eta iritzi subjetiboa da hau ere, talde abertzaleek, oro har, aurrekoetan baino ehuneko 10 gutxiago lortu dutela. Eta uste dut horrek ideologi leuntze baten aldeko jarrera adierazten duela, baita abertzaleen familia oso horren baitan ere.

Eta kontestuaren eta hautesleen mezu horien gainean esandako horiengatik hartu dugu erabaki politiko hau, Gobernu honetan, Euskal Herriarentzako Gobernu indartsu eta iraunkor honetan, parte hartzekoa alegia. Zergatik? Oso garai zailak direlako hauek. Eta ez dizuet trufatzeko bide eman nahi: ez Alderdi Sozialistarentzat, herriarentzat baizik. Oso denbora zailak dira, oro har, aipatu dudan kontestuan gaudela eta inkognita eta zailtasun piloa dauzkagula, halamoduzko irtenbiderik onartzen ez dutenak, halakoxe irtenbideak eman baitira hemen, hots, panfleto gisako planteamenduak, guztiz zaharkituak eta gure arazoen benetako zailtasun eta errealitateetatik guztiz urrunduak.

Horra hor, beraz, lehen erabakia, herri honi gobernu indartsu eta iraunkor bat ematea, horixe baita herri hau bide egokitik abiarazteko aukera bakarra. Hori da oinarrizko lehen baldintza. Eta hori egin genezakeenekin egin dugu, Euzko Alderdi Jeltzalearekin eta Eusko Alkartasunarekin. Eta hala goaz Euskal Sozialistak gobernu honetara, uste dugulako, lehen nioenez, gu bertan egotea Elkarte honen aniztasun politikoaren adierazgarri dela eta gisa horretara lehen aipaturiko beharrizanei askoz ere egokiago erantzuten dien gobernua osatzen dugula. EAJ eta EAren artean osaturiko gobernu batek baino askoz ere egokiago, zeren, argi eta garbi esan behar da, horixe baitzen beste aukera, Alderdi Sozialista gobernuan ez sartzez gerotan.

Oreka, aniztasun eta moderazio puntu izan nahi dugu, beraz, jarrera abertzale ez anitz eta ez moderatuen aurrean. Eta gu, Euskal Sozialistak, barruan gaudela, Eusko Jaurlaritza berria eta bere oinarri den programa indartsuago bihurtzen dira, iraunkorrago, anitzago eta ezkertiarrago. Herriarenganako sentitzen dugun ardurak

más plural y es más de izquierdas. Vamos a él por sentido de la responsabilidad con el país y con el momento que vivimos en la política y en la economía, mucho más que por un cálculo partidario.

Cálculos partidarios los hay, claro ¿Y quién no los tiene, señorías? ¿Quién no los tiene, señor Mayor Oreja? Ha hecho usted una referencia a que quizás el Partido Socialista ha determinado esta solución buscando un refugio. Ya he dicho que no es el móvil que nos inspira en esta decisión. Pero, si de móviles partidarios hablamos, reconozcámoslos todos. Nosotros los tenemos. Son secundarios, pero los tenemos. Tan evidentes y tan importantes como los han tenido otros para negarse siquiera a participar en un proceso de negociación con los demás partidos políticos. Por lo menos tan nobles como ésos. Más, diría yo.

Más nobles en cuanto que nuestra pretensión última con nuestro sí a este Gobierno es precisamente dar una continuidad y una coherencia al papel que este partido ha venido jugando desde hace diez años, como me reconocía el propio Mayor Oreja, y que hoy también seguimos ejerciendo. Mucho mejor, creo yo, señor Mayor Oreja, que ustedes, que, al no haber participado con toda su nueva representación importante, con sus 11 escaños, yo creo que han negado la posibilidad de una representación más eficaz a esos electores que pretendían o que deseaban, interpreto yo, que su partido ejerciera ese papel.

Y yo no creo que sea correcto, aunque ya en esta parte de la intimidad de sus relaciones con el señor Ardanza no puedo entrar, decir que el Partido Nacionalista Vasco no ha querido mirar otras alternativas y que sólo ha querido al Partido Socialista y a EA, porque a mí no me han dicho eso. A mí me han dicho claramente que el Partido Popular se ha negado absolutamente a la negociación. Y se ha negado a la negociación probablemente porque incluso ustedes mismos han dicho, me parece que reiteradas veces, que no querían negociar formar parte del Gobierno, que les bastaba con apoyar al PNV, bien monocolor, bien bipartito con EA, a cambio, eso sí, de que el Partido Nacionalista Vasco cambiara su política en la política española, obsesionados por esa coyuntura nacional que hace que el único objetivo que ha defendido el PP en la política vasca de hoy con su nueva representación sea cambiar el papel del PNV en la política española, no la política vasca, en función de una representación y de una presencia del Partido Popular quizás negociada para moderar el nacionalismo, para hacer más plural el país, para conseguir los objetivos que el Partido Socialista consigue hoy, como hace diez años, justamente estando en este Gobierno.

Y yo creo, señor Mayor Oreja, que a usted le ocurre que su análisis político está exclusivamente centrado mirando permanentemente a lo que pase en Madrid, solamente. Y no es un adjetivo ni un calificativo que me guste hacer, pero es que lo que se ha derivado de su cálculo político ha sido eso. Le pasa como le ocurre aquí en esta misma tribuna, que, en vez de miramos aquí

eta politika zein ekonomia mailan bizi dugun uneak bultzatuta goaz Gobernu honetara, kalkulu partidario baten ondorioz baino askozaz ere areago.

Kalkulu partidarioak ere bai, noski. Nork ez du, bada, halakorik egiten, jaun-andreok? Nork ez, Mayor Oreja jauna? Zuk aipatu duzu beharbada Alderdi Sozialista babes bila dabilela hartutako erabaki horrekin. Eta esana dut ez dela hori izan erabaki hau hartzera eraman gaituena. Baina bultzagarri partidarioak aipatzen hasiz gero, aitor ditzagun denak, bakoitzak bereak. Guk badugu horrelakorik. Bigarren mailakoak dira, baina badauzkagu. Beste batzuenak bezain nabari eta garrantzitsuak, hala nola gainerako alderdi politikoekin negoziazio-prozesu batean parte hartu nahi izan nahi ez dutenenak. Horiek bezain zintzoak behintzat. Zintzoagoak, esango nuke nik.

Zintzoagoak, zeren zein izan da azken finean Gobernu honi baietza emateko arrazoia? Bada, alderdi honek, Mayor Oreja jaunak berak aitortu didanez, hamar urtetik hona bete duen eta egun ere betetzen duen egínkizunari jarraipena eta koherentzia ematea, hain zuzen ere. Zuek baino askoz ere egokiago, zeren zuek, daukazuen ordezkotza berriarekin, 11 eserleku horiekin, parte hartu ez duzuenez, ukatu egin baitiezue, nik uste, ordezkotza eragingarriago bat edukitzeko aukera zuei botoa eman eta, nire ustez, zuen alderdiak egínkizun hori betetzea nahiago luketen hautesle horiei guztiei.

Eta ez dut uste zuzena denik esatea, nahiz eta Ardanza jaunarekin izan dituzun elkarrizketeten intimitatean sartzea ez dagokidan, Euzko Alderdi Jeltzaleak ez duela bestelako aukerarik aztertu nahi izan eta Alderdi Sozialista eta EA besterik ez duela nahi izan, zeren niri ez baitidate halakorik esan. Niri esan didate, argi eta garbi esan ere, Alderdi Popularrak ezezko borobila eman diola ezein negoziaketari. Zeuok esan duzue behin baino gehiagotan, oker ez banago, ez zenutela negoziatu nahi gobernukide izateko, aski zenutela EAJri laguntzearekin, dela bakarrean, dela EArekin elkar harturik, baina hori bai, horren truke EAJk Espainia mailako bere politika aldatuz gero beti ere, zeren itsututa baitzabiltzate nazioko egoerarekin eta, horren ondorioz, PPk, duen ordezkotza berriarekin, euskal politikagintzan izan duen helburu bakarra EAJri Espainia mailan duen politika aldaraztea izan baita eta ez, bere ordezkotza berriaz baliatuz eta behar izanez gero baita negoziatuz ere, euskal politika aldatu eta abertzaletasuna apaltzeko, herri hau anitzagoa bilkarazteko, Alderdi Sozialistak egun, duela hamar urte bezalaxe, dauzkan helburuak horiek lortzeko.

Eta esango nuke, Mayor Oreja jauna, zure analisi politikoa Madrilen gertzatzen denari begiratuz eginikoa dela soilik. Eta ez zait gustatzen horrelako esamolderik erabiltzea, baina horixe ondorioztatzen da zuk egindako kalkulu politikotik. Hemendik mintzatoki honetatik aritzen zarenean bezalaxe gertatzen zaizu, hots, legebiltzarkideoi begiratu beharrean, ez dakit zergatik,

a los compañeros de la Cámara, sólo mira a la televisión, no sé por qué. Y yo creo que es una especie de obsesión por confundir los objetivos, ¿no?

A mí me parece que de su discurso cabe extender fundamentalmente una conclusión: ustedes no han jugado el papel que les correspondía en la Cámara y en la política vasca en función de su representación. Y, por cierto, si algo se puede dejar claro de su intervención de aquí hoy es que no hay nada positivo, no hay ninguna propuesta. Si alguien quiere recordar el discurso del Partido Popular, que nos diga qué ha propuesto a esta Cámara. Más bien habría que explicitarle o denominarle "el sindicato del no" o "la alternativa de la nada".

Y, por cierto, señor Mayor Oreja, matizarle únicamente también que, cuando yo protesté hace cuatro años respecto a la posibilidad de que la coalición de Gobierno que se había formado con EA y con Euskadiko Ezkerra fuera una violación de las mayorías, lo hacía porque teníamos 16 diputados nosotros, éramos el segundo partido de la Cámara, y un acuerdo entre los partidos, que luego no se produjo, pretendía burlar esa representación.

Le diré al mismo tiempo que nosotros no tenemos ningún acuerdo en este momento en el Gobierno con EA y con el Partido Nacionalista Vasco sobre los escaños de Senado, y que, en todo caso, estamos simplemente defendiendo el orden de mayorías que la Cámara ha proporcionado y que evidentemente podría o debería proporcionarnos a nosotros un senador, sin más acuerdo que pueda producir, por lo tanto, contradicción ninguna con lo que fue mi postura en aquella ocasión.

Esto es lo que queremos hacer, señorías. Vamos pues a este Gobierno porque nosotros -también se lo quiero decir con toda cordialidad a los compañeros de Izquierda Unida- somos un partido de izquierda autonomista, que queremos transformar la sociedad y queremos hacerla más justa; que queremos lograr la paz y recuperar la economía creando empleo y viviendo en autonomía dentro de España. Y estamos convencidos de que esos objetivos se consiguen mejor trabajando en el Gobierno que desde la oposición. Vamos, pues, a ese Gobierno porque nos sentimos representantes de un proyecto social-demócrata, con vocación transformadora y no con vocación testimonial.

Y tengo que decir muy claramente, en honor a la verdad, que nuestra negociación con PNV y con EA, tal como ha dicho, creo, Carlos Garaikoetxea anteriormente, ha proporcionado una aproximación ideológica muy importante en este capítulo, hasta el punto de que creo que claramente este programa de gobierno puede perfectamente identificarse como un programa con signos y políticas inequívocamente social-demócratas.

Yo quisiera, no obstante, señor Madrazo, darle algunas referencias con toda cordialidad respecto a su planteamiento en contra de este Gobierno por este capítulo ideológico. Déjenme que lo haga dándole algunos consejos que quiero que tome, repito, como

telebistari so egoten zarela. Uste dut itsututa zabiltzatela helburu-nahasketa horretan, ezta?

Zure mintzalditik ondorio bakarra atera daitekeela esango nuke: zuek ez duzue bete, dituzuen ordezkariak dituzuela, Eusko Legebiltzarrean eta euskal politikan betetzea zegokizuen eginkizuna. Eta zure mintzaldian ezer argi gelditu bada zera da, alegia, ez duzuela deus positiborik eskaintzen, ez duzuela proposamenik bat ere egiten. Oroitu bestela Alderdi Popularraren mintzaldia eta esan zer proposatu dion Legebiltzarrari. Izenik jartzekotan "ezezkoaren sindikatua" edo "ezerezaren alternatiba" edo antzekoren bat jarri beharko genioke.

Eta gauzatxo bat argitu nahi nizuke Mayor Oreja jauna: nik, orain dela lau urte, EA eta Euskadiko Ezkerrarekin Jaurlaritza osatu zutenean, hori agian gehiengoak apurtzea izango zela eta protesta egin nuenean, beste arrazoi bategatik esan nuen hori. Hona: guk 16 diputatu genituen orduan, Legebiltzarreko bigarren alderdia ginen, eta alderdi batzuen arteko akordio hark, gero gauzatu ez bazen ere, ez zuen kontutan hartzen halako ordezkotzaren balioa.

Era berean esango dizut guk ez dugula Gobernuan inolako akordiorik EA eta EAJrekin Senatuko eserlekuei buruz eta, nolanahi ere, Legebiltzarreko ordezkaritza ikusita, guri senadore bat dagokigula, inolako akordiorik gabe eta nik garai hartan esandakoarekiko inolako kontraesanik gabe.

Horixe da, bada, egin nahi duguna, jaun-andreok. Alderdi ezkertiar eta autonomizalea garelako goaz Gobernu honetara -adeitasun osoz esan nahi diet hori Ezker Batuako kideei-, gizartea aldatu eta zuzenago bihurtu nahi dugulako; bakea lortu eta ekonomia indarberritu nahi dugulako, enplegua sortu eta Espainia barruan autonomian bizi nahi dugulako. Eta bete-betean uste dugu hobe dela helburu horiek lortzeko Gobernuaren barruan egotea oposizioan baino. Proiektu sozial-demokrata baten ordezkari garela uste dugulako goaz Gobernu horretara, gauzak benetan aldatu nahi ditugulako, ez dugulako jarrera testimonialean geratu nahi.

Argi eta garbi esan behar dut, egiaren den bezala esateko, EAJ eta EArekin egin dugun negoziaketan, lehentxeago oker ez banago Garaikoetxea jaunak esan duenez, halako hurbilketa ideologiko bat gertatu dela, eta ez nolanahikoa, alde horretatik. Hainbestekoa, ezen uste baitut argi eta garbi esan daitekeela Gobernu honen programa sozial-demokrata dela, dudarik gabe.

Hala ere, Madrazo jauna, gauza bat edo beste esan nahi nizuke, adeitasun osoz, ideologia dela-eta Gobernu honen kontra egin duzun planteamenduaz. Eta zilegi bekit, horretarako, zenbait aholku ematea, zeinak, berriro diot, adeitasun eta elkar ulertzeko keinu gisa

expresión de afecto y de entendimiento, cosa que ustedes no muestran casi nunca por nosotros.

Primera, yo creo que hace falta un poco más de rigor en los juicios, ¿no? Un poco más de rigor, porque es que, si no, se pierde legitimidad para poder expresar críticas. Creo que calificar el acuerdo de pesca, por poner un ejemplo, que puede ser censurable por aquí o por allá, pero como una puñalada, cuando por lo menos ha permitido que seis años antes de la entrada en los caladeros europeos la flota española pueda entrar... al margen de que ha generado un problema con la anchoa, de acuerdo, pero esto de "una puñalada de Bruselas" francamente no parece demasiado lógico desde el punto de vista del rigor. Esto de que el Gobierno Vasco lleva fracasando 12 o 15 años, toda su existencia, en todo, ¡hombre!, no es lógico. Esto de que la política industrial ha generado desertización industrial general, pues, no es verdad. Esto de que Maastricht sea el culpable absolutamente de todos nuestros males lo dice Julio Anguita, pero no se lo cree nadie. ¿Me explico? De manera que yo creo que hay que dar un poco más de rigor a lo que es la valoración política de las cosas.

Segunda recomendación que le quería hacer: no debe usted hacer, ni usted ni nadie, juicios de valor. Usted ha hecho uno muy grave, éste que dice que toda la negociación ha estado centrada en el reparto del poder. Usted no sabe nada de lo que ha sido la negociación. Por tanto, no lo diga. La negociación ha tenido un capítulo desde el punto de vista programático enorme, desde el punto de vista de tiempo y de discusión política. Hasta el último día, creo recordar que el martes último, antes de que cerráramos el acuerdo, estuvimos discutiendo entre otras cosas, porque yo lo recuerdo así, pacto de Ajuria Enea y política lingüística. Para nada reparto de poder. Y nos dieron las tres de la mañana de ese último día de reunión, porque fueron problemas de discusión política.

Por tanto, yo creo que no es correcto que usted haga esos juicios de valor, porque no han participado, en parte -permítame que se lo diga- por una decisión que yo lamento, porque me parece a mí que desde que recibieron la llamada del Lehendakari en funciones cabía la posibilidad de que Izquierda Unida hubiera jugado un papel en algún sentido, en alguna orientación, y ustedes no lo han jugado.

Creo también que hay que tener un poco más de humildad, señor Madrazo. En fin, algunos llevamos mucho tiempo en esto y yo creo que esto de que uno venga aquí diciendo "somos la única izquierda" y "enhorabuena, porque la izquierda entra ya en el Parlamento Vasco" a algunos nos molesta. Nos molesta sencillamente no tanto porque, digamos, "yo también soy izquierda", sino (fíjese usted lo que me preocupa más) porque eso demuestra una concepción totalitaria que yo creía olvidada. Eso de que "yo soy la única..." ¿por qué? Yo creo que ustedes son izquierda, y les voy a decir más: yo creo que ustedes quieren cosas que yo también quiero. Discrepamos en algunos procedimientos, sin duda, pero evidentemente hay caminos para todo y hay oportunidades de entendimiento si se quiere y si se busca.

hartzea nahi baitut, oso gutxitan azaltzen baituzue zuek halakorik guganako.

Lehenik, uste dut zehaztasun handiagoz hitz egin behar dela iritziak ematerakoan, ezta? Zehaztasun handixeagoa, zeren, bestela, galdu egiten baitu batek kritikak egiteko legitimitatea. Arrantzari buruzko akordioa, esate baterako, kritikagarria izan arren, labankada baten gisakoa dela esatea, kontuan izanik Europako kaladeroetan sartu baino sei urte lehenago behintzat itsasuntzi espainiarrei aukera eman diela... alde batera utzirik antxoaren inguruan sortutako arazoa, horretan ados, baina "Brusselaren labankada" izan dela esatea, egia esan, ez dirudi oso logikoa zehaztasunaren ikuspegitik. Esatea Eusko Jaurlaritzak 12 edo hamabost urte daramala, sortu zenetik alegia, gauza guztietan porrot egiten, mesedez!, ez da logikoa. Industri politikak industria oro har desagertzea ekarri duela esatea, bada, ez da egia. Gure gaitz guztien erruduna Maastricht dela, hori Julio Anguitak dio, baina ez du inork ere sinesten. Ulertzen? Beraz, zehaztasun handiagoz hitz egin behar da, nik uste, balorazio politikoak egiterakoan.

Hona egin nahi nizun bigarren gomendioa: ez duzu, ez zuk ez beste inork ere, inoren asmorik juzkatu behar. Eta zuk juzkatu egin duzu, era larri batean gainera, zeren esan baituzu negoziazio guztia botere-banaketaren ingurukoa izan dela. Zuk ez dakizu ezertxo ere egindako negoziazioaz. Beraz, ez horrelakorik esan. Denbora asko eskaini diogu eta luze eztabaidatu dugu programaz negoziazioan zehar. Azken eguneraino, joan den astearteraino oker ezbanago, aritu ginen eztabaidatzen, gogoan baitut oraindik, Ajuria Eneko hitzarmenaz eta hizkuntz politikaz. Eta ez inola ere botere-banaketaz. Eta goizeko hirurak arte aritu ginen azken egun hartan, eztabaida politikoa izan baitzen arazo haien inguruan egin genuena.

Horrenbestez, ez dago ongi zuk horrelako asmo-juzkurik egitea, zeren negoziazio horretan parte hartu ez baduzue, neurri batean -zilegi bekit esatea- deitoragarri iruditzen zaidan erabaki batengatik izan baita, zeren uste baitut ezen iharduneko lehendakariaren deia jaso zenutenetik bazenutela aukera Ezker Batuakoek eginkizunen bat betetzeko, modu batera edo bestera, eta zuek ez duzue horrelakorik egin.

Apalagoa ere izan behar delakoan nago, Madrazo jauna. Begira, urte asko daramagu batzuek honetan eta ez zaigu batere atsegin inor hona etorri eta "geu gara ezker bakarra", "zorionak, oraintxe sartu baita ezkerra Legebiltzarrean" eta horrelakoak esaten entzutea. Eta ez guk ere geure burua ezkerrekotzat dugulako, baizik eta -pentsa zer den gehien kekatzen nauena- horrek nik ahaztutzat neuken ikuspegi totalitario bat erakusten duelako. "Geu gara ezker bakarra..." zergatik? Ezkerrekotzat zaituztet, eta are gehiago dena: uste dut zuen helburu batzuk eta gureak bat datozela. Ez gatoz bat zenbait jokabidez denaz bezainbatean, bistan da, baina, jakina, beti egon ohi da bide bat baino gehiago eta beti daude elkar ulertzeko moduak, hala nahi izanez gero eta horretan saituz gero.

Esos consejos quería darle, señor Madrazo, teniendo en cuenta que nuestra trayectoria es la de un partido que se llama o que tiene vocación transformadora y no testimonial. Usted dice "somos la izquierda transformadora", pero creo que se transforma mucho más y se hace mucho más asumiendo responsabilidades, mojándose, incluso aceptando cosas que pueden no gustar demasiado, pero asumiendo capacidad de poder y estando ahí, influyendo, que desde una cómoda posición del no a todo o de oposición sistemática a casi todo.

Vamos, señorías, pues, a un Gobierno que tiene una amplia mayoría, pero que no por eso debe entenderse -y es la segunda conclusión que quiero extraer de mi prolegómeno en la intervención-, no debe entenderse como un deseo de imposición. El Lehendakari lo ha dicho bien esta mañana y yo reitero sus palabras y las voy a concretar, porque creo que, como consecuencia de lo que antes les decía, hay oportunidad, hay necesidad de practicar nuevos consensos en la política vasca.

Sin duda, el primero y el más urgente es que nos pongamos de acuerdo en dos o en tres meses para que transformemos el Reglamento de la Cámara en la línea de lo que ya se ha dicho. No voy a añadir nada más, pero comparto la idea, y se ha planteado en nuestro programa de gobierno, de que esta Cámara sea una Cámara fresca en tiempo y en forma y en contenidos para que pueda haber debates vivos y absolutamente directos con lo que es la problemática. Y esa reforma del Reglamento se puede hacer en poco tiempo si somos capaces de mantener una política común en los próximos dos meses al respecto.

De la misma manera, yo quisiera que esta Cámara abordara una política de consenso en un tema que nos preocupa y que ya ha sido expuesto por varios intervinientes en relación con el capítulo de la política lingüística. Nosotros creemos que hay problemas en esto. Lo digo con toda honestidad, que creo que hay algunos problemas. Nuestra posición en general, ¿cuál es? No voy a explicar cuáles son los problemas, ya son de todos conocidos. Nosotros queremos que los objetivos de la ley básica de Normalización sigan adelante, estamos a favor de un bilingüismo real y, por tanto, concebimos la necesidad de una acción positiva a favor del euskera. Como bases fundamentales de nuestra posición. Creemos, obviamente, que esto hay que hacerlo con mucho tiempo, a través de un proceso generacional y fundamentalmente a través del instrumento educativo, teniendo en cuenta, sin duda, lo que son los problemas territoriales, etcétera, etcétera.

¿Qué queremos evitar? Pues lo que empieza a producirse claramente ya en el panorama de la política lingüística. Por una parte, fundamentalismos lingüísticos o ideológicos de un lado o de otro, rechazos sociales o actitudes contra el euskera que perjudican al objetivo del bilingüismo, y, por supuesto, discriminaciones. Preferimos ir despacio pero con buena letra, y conseguir un objetivo a 20, a 30 o a 60 años, y no que éste quede seriamente perjudicado desde el punto de vista de su éxito en el objetivo final.

Aholku horietxek eman nahi nizkizun, Madrazo jauna, kontuan izan behar baita gure alderdiak alderdi transformatzailea izan nahi duela eta ez testimoniala. Zuk diozu "ezker transformatzailea gara", baina nik uste dut askoz ere gehiago transformatzen dela eta askoz ere gehiago egiten dela erantzukizunak hartuz, bustiz, baita oso gustuko ez diren gauzak onartuz ere, baina aginte-ahalmenez jabetuz eta hortxe egonez, eraginez, askoz ere gehiago egiten da horrela, eroso-eroso gauza guztiei ezetz esanez baino.

Beraz, jaun andreok, gehiengo zabal bat izango duen Gobernua izango dugu, baina hala ere -eta hauxe da nire mintzaldiko prolegomenotik atera nahi dudan bigarren ondorioa-, hori ez da inposizio-nahi gisa ulertu behar. Ongi azaldu du gaur goizean lehendakariak eta nik errepikatu eta zehaztu egingo ditut bere hitzak, zeren uste baitut, lehen esandakoaren ondorioz, kontsentsu berriak bilatzeko aukera dugula, baita premia ere, euskal politikagintzan.

Horietako lehena eta premiazkoena, dudarik gabe, hauxe da: ados jarri beharra daukagu bizpahiru hilabetetan Legebiltzarreko Araudia gaur aipatu dugun ildotik aldatzeko. Ez dut gehiago esango, baina bat nator, eta halaxe jaso dugu gure gobernu-programan, Legebiltzar freskoa behar dugu, denborari, erari eta edukiei dagokienez eztabaida biziak eta arazoekin zuze-zuzenean atxikiak egin ahal izateko. Eta Araudiaren erreforma hori oso denbora gutxian egin daiteke, baldin eta datozen bi hilabeteotan horri buruzko politika bateratua egiteko gauza bagara.

Se ha referido al Parlamento Vasco, a la "Administración vascongada", al "Parlamento vascongado"... Mire usted, le guste o no le guste, tenga usted claro que este Parlamento es el Parlamento de la nación vasca. Aunque en estos momentos sólo represente a dos de cada tres vascos, el Estatuto de Autonomía dice que Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y también Navarra tienen derecho, si así lo desean -y respetando su voluntad, naturalmente-, a desarrollar un proyecto común. También hay algunos vascos al otro lado de la frontera. Pero éste es el Parlamento de la nación vasca.

Y ustedes no tienen una alternativa. En su momento se les ocurrió la idea de un Parlamento popular; realizaron las juras en Leire, y luego se fueron a Gernika, a organizar la "asamblea popular nacional" y nada más, ahí se acaba todo. Como el Estatuto no era bueno, ustedes sacaron el "Estatuto Nacional de Autonomía", ¿dónde guardan ustedes aquel ENA? ¿En alguna biblioteca cubierto de polvo? ¿Ya no lo presentan? Ahora se dedican a otras cosas, a otras estrategias. Y también hablaremos sobre ellas.

Pero usted hoy nos ha expuesto aquí otra condición, la del preso. Yo le voy a adelantar lo que pensamos: por un lado, que un Estado que cuenta con 600 presos tiene entre manos un problema político. Eso se lo adelanto. Pero a usted -puesto que ha venido en su

etorri zara, eta esan duzu beraien ordezkari zarela eta hautatua izan zarela- eskatuko nizuke, ahal baduzu behintzat, atzera berriz bueltan, zure bertsioarekin, esango dizudana ere beraiei azaltzeko. Begiratu, badakizu guk zer nahi dugun zuretzat eta beste gainontzekoentzat? Zuek aske egotea. Ez Euskal Herriko kartzeletan, baizikan etxean, zuen lanpostuetan eta kalean. Badakizu zer opa diegun preso guztiei? Zu hor tartean zauden bezela, zure alboan eta atzean dauden horien bizitza-kondizioak. Hauei ahoa betetzen zaie aldiro-aldiro esaterakoan beraien helburu politikoak eta zuenak berdinak direla, baina hauek kalean daude eta zuek barruan. Eta bakoitzak bere papera eduki dezake. Nik ez daukat zure ideien kontra ezer ere. Eta zu prebentibo baldin bazaude, eta epaitua izaten baldin bazara eta zigortua -ez dakit zer izango duzun-, nik eskatzen dizudan bakarra da zure ideiak defenditzen jarraitzeko, kalera irteteko eta atzera berriz ez armarik ez amonalik hartzeko. Beste hauen kondizioa nahi dut zuentzako.

Zergatik aldiro-aldiro hauek, Herri Batasunako hauek, ekartzen dute preso bat ahal duten guztietan antzeko ekitaldietara? Besteak beste, kate luze horretan kate-mailarik ahulena presoena delako. Sufrimentua duen kate-maila presoena da, eta hori isladatu nahi dute kanpora, bere ahulezia ez dutelako aitortu nahi. Eta zuei esaten baldin bazaizue bisita bat jasotzen duzuen bakoitzean "ez apuratu, zuena da irabazi edo galdu, hil ala bizi, garaipena edo porrota; hemen ez dago enpaterik, edo irabazten da edo galtzen da", ba, zuek daukazue aukera espiral hori hausteko. Eta espiral horrek begiratu nora garamatzan, zuek eta gu.

Kate-mailarik ahulena aprobetxatzen dute, behin eta berriz, ahal duten bakoitzean. Ahaztu egin zaizkie zenbait gauza, ahaztu. Ez dira hilabete asko, Karmelo Landa... Momentu honetan atera duzue -hauxe bakarrik ekarri dut tribunatik-, irakurria dut, "Oldartzen" ("Acometiendo"). Hau aurrera ateratzen baldin bada, iraultzaileen garaipena da, abertzaleak alboratu eta zokoratuak geldituko dira. Zuk zerorrek esan zenuen Israel eta Palestinako prozesua garatzen hasi zenean, mitin handi batean, "Euskadik badu bere Arafat"; ozenki esan zenuen, gainera. Ez zen denbora asko pasa eta erantzun genizun esanez: "Oker zabiltza, Landa; zuek ez zarete Arafat, zuek Hamas zarete, eta zuek hautsiko duzue, haiek saiatzen ari diren bezela, edozein pake-prozesu". Goraipatu zenuten hura. Handik hilabete batzuetara, Irlanda. Hemen Palestinako prozesua eta Irlandakoa bota dituzue pikutara. Ja ez dute balio. Ez dira eredu baliagarriak. Zergatik? Zer esan zizuen McGuinnessek? Zer esan zizuen? Besteak beste, jarrera aldatu zutela, borroka armatua utzi egin zutela, beste bide batzuk urratu nahi zituztela, eta estrategia horretan, gainera, 28 urteko estrategia eta esperantza bat gauzatu nahi zutela.

Ez zarete ausartzen egia esatera. Hemen dauden "pluma" guzti hauek -eta izenak esango nizkizuke-, hauek dira iraultzaileak, eta bakarren bat, hemen dagoen "pluma" bat, 81. urtean PSOEren kongresu batean egon zen "revolucionario" frustratu bat.

condición de representante, y ha dicho que los representa y que ha sido elegida para ello- le pediría que, si le es posible, a la vuelta, con su versión, les transmita también a ellos lo que le voy a decir. Mire, ¿sabe lo que queremos para usted y para los demás? Que estén en libertad. No en las cárceles del País Vasco, sino en casa, en sus puestos de trabajo y en la calle. ¿Sabe qué deseamos para todos los presos? Al igual que usted ahora, que tengan las mismas condiciones de vida que quienes se sientan delante y detrás de usted. A ésos se les llena la boca periódicamente con la proclamación de que sus objetivos políticos y los de ustedes son idénticos, pero ellos están en la calle y ustedes dentro. Y cada uno puede tener su papel. Yo no tengo nada en contra de sus ideas. Y si usted está en prisión preventiva, y le juzgan y le imponen una pena -no sé cuál será la suya-, lo único que le pido es que continúe defendiendo sus ideas, que salga a la calle y no vuelva a empuñar ni las armas ni el amonal. Deseo para ustedes la condición de estos otros.

¿Por qué ésos, los de Herri Batasuna, traen siempre que pueden algún preso a actos de este tipo? Entre otras razones, porque los presos constituyen el eslabón más débil de esa larga cadena. El eslabón del sufrimiento es el de los presos, y quieren que esa imagen se refleje en el exterior, porque no quieren reconocer su debilidad. Y cada vez que ustedes reciban una visita y les digan "no os apuréis, lo vuestro consiste en ganar o perder, morir o vivir, el éxito o el fracaso; aquí no existe el empate, o se gana o se pierde", entonces tienen ustedes la oportunidad de romper la espiral. Y mire a dónde nos conduce, a ustedes y a nosotros, esa espiral.

Se aprovechan una y otra vez, cada vez que pueden, del eslabón más débil de la cadena. Se les han olvidado ciertas cosas, las han olvidado. No hace muchos meses, Karmelo Landa... En estos momentos han presentado ustedes -sólo he traído esto a la tribuna-, yo lo he leído, el documento "Oldartzen" ("Acometiendo"). Si prospera, habrán ganado los revolucionarios, los abertzales quedarán excluidos y arrinconados. Usted mismo dijo cuando echó a andar el proceso de Israel y Palestina, en un gran mitin, "Euskadi también tiene su Arafat"; además, lo dijo a viva voz. No mucho más tarde le contestamos diciéndole: "Se equivoca, señor Landa; ustedes no son Arafat, ustedes son Hamas, y ustedes destruirán, tal y como allí lo están intentando, todo proceso de paz". Elogiaron aquel proceso. Unos meses más tarde también el de Irlanda. Aquí rechazan un proceso similar al de Palestina e Irlanda. Ya no valen. No son modelos válidos. ¿Por qué? ¿Qué les dijo McGuiness? ¿Qué les dijo? Entre otras cosas, que habían cambiado de postura, que habían abandonado la lucha armada, que querían utilizar otras vías, y dentro de esa estrategia, además, querían materializar una estrategia y a una esperanza de 28 años.

No se atreven a decir la verdad. Las "plumas" de esta ponencia -y le diría los nombres- son todos revolucionarios, y alguna, una de las "plumas" que se encuentra aquí, es revolucionario frustrado asistente a un congreso del PSOE en el 81.

Hor dago hori. Baina hemen edo zuen morroi gera edo traidore gara. Ez dago bueltarik. Edo zuek duzue arrazoia denean? Badirudi zuek egia ikusi duzuela, ikutu egin duzuela; zer estadutan dagoen badakizue, likidoa, gaseosoa edo solidoa den; jeisten zarete lurrera eta kontatzen diguzue egia. Gainontzeko guztiak oker gabiltza. Ba, ez da hala. Guk ez daukagu egia osoa, ez dugu denetan asmatzen. Hanka sartzen dugu, askotan. Baina jeitsi zaitezte lurrera, etorri zaitezte Legebiltzar honetara; ikus ditzagun zein diren zuen ikusmolde sozial, politiko, ekonomiko horiek, banan-bana; emaiozue zuen proiektu politikoari gorputza, aurpegi bat jarriozue.

Hala guztiz ere, guk garbi daukagu Gobernu honetatikan, eta lau urtetarako helburu bezela jarria daukagu, pakea eta elkarrenganatzea lortu nahi dugula. Eta horretan saiatuko gara. Eta ez diogu beldurrik porrotari, ahaleginari. Saiatuko gara. Inongo oinarri demokratikorik apurtu gabe, baina saiatu, saitatuko gara, pentsatzen dugulako merezi duela. Hamabost urte badira Estatutua onartu zenetik, zazpi urte beteko ditu Ajuria Eneko Itunak, eta legegintzaldi hau amaitzerakoan ETAk 40 urte. Ba, guk ere pentsatzen dugu soluzio bat topatu behar dela. Denborak erakutsiko du zein den zein, eta benetan zein den abertzalea eta zein den iraultzailea, iraultzailea soilik.

Madrazo jauna, gauza asko esan dituzu. Bakarren batzuk erantzunak izan dira, baina arlo berezi bat ikutu duzunez, ekonomia eta solidaridadearena alegia, modelo sozialarena -esango nuke-, gure idea azaldu nahi genizuke. Ze, besteak beste, zure interbentzioak zerbait erakutsi baldin badu da -ez dakit ezkerra sartu dan Parlamentu honetara-, garbi dagoena da azkeneko hamar urte hauetan ez zarela ezertaz enteratu, ez duzuela jarraitu ez boletina ezta periodikoak ere. Hemen gauza asko aipatu, aztertu eta erabaki dira. Zuk azaldutakoak, noski. Baina eman duzun itxura -eta bakarren batek aipatu du hitza- "molestar", haserrea... Ba, egia da, sortu egin duzu haserre bat. Badirudi mundua, demokrazia eta Eusko Legebiltzarra martxan jarriko dela gaur zuek azaldu zaretelako. Hemen ez da ezer egin.

Hemen gauza asko egin dira. Ez ziren denak onak izango, ez ziren denak zure gustokoak izango; baina hemen arau batzuk daude, eta bakoitzak bere proiektuak aurkezten ditu, eta uztarketatik ateratzen da gehiengoak nahi duena. Baina demagogia asko ekarri duzu zure diskurtsoan, kamioikada bikainak ekarri dituzu. Hitz egiten duzu etikaz, lehenengo eta behin hemen etika-paktu bat egin behar dela. Eta orain arte egindako guztia nola egin dugu, etikatik kanpo ala? Zuk zer uste duzu, hemen ez dagoela behar adinako minimo etikorik politikan aritzeko? Edo ez dugula nahi argitu eta garbitu eta zehaztu, gertatzen den kasuan, puntu-puntuan, iruzurrik baldin badago, ustelkeria baldin badago? Ez dugula hori argitu nahi?

Aipatu dituzu, errosario baten moduan, Max Center, Azpiegitura, txanponak eta ez dakit zer, Osakidetza, eta Benta Berri ere sartu duzu. Gauza bat

Así son las cosas. Pero aquí, o somos sus servidores, o somos traidores. No hay otra alternativa. ¿O tienen ustedes siempre la razón? Parece que a ustedes se les ha revelado la verdad, que la han palpado; han conocido su estado, si es líquida, gaseosa o sólida; luego, bajan a la tierra y nos cuentan la verdad. Todos los demás estamos equivocados. Pues, no es así. Nosotros no poseemos toda la verdad, no acertamos en todo. A menudo metemos la pata. Pero bajen ustedes a la tierra, vengan a este Parlamento; veamos cuáles son sus posicionamientos sociales, políticos y económicos, uno a uno; denle un cuerpo a su proyecto político, pónganle rostro.

De todos modos, desde este Gobierno tenemos claro que queremos lograr la paz y la reconciliación, y nos hemos planteado ese objetivo para estos cuatro años. Y lo vamos a intentar. No tenemos temor al fracaso, al esfuerzo. Lo intentaremos. Sin quebrar ningún pilar democrático, pero lo intentaremos, porque creemos que merece la pena. Han pasado quince años desde que se aprobó el Estatuto, el Pacto de Ajuria Enea cumplirá siete años, y al término de esta legislatura ETA cumplirá 40 años. Nosotros pensamos que hay que encontrar una solución. El tiempo nos mostrará quién es cada cual, quién es un verdadero abertzale y quién un revolucionario, únicamente revolucionario.

Señor Madrazo, usted ha dicho muchas cosas. Algunas ya han tenido respuesta, pero ya que usted ha entrado en un campo específico, el de la economía y la solidaridad, el del modelo social -diríamos-, querría explicarle nuestra posición. Porque, ciertamente, su intervención nos ha demostrado bien a las claras -yo no sé si la izquierda ha entrado en este Parlamento- que usted no se ha enterado de nada durante estos últimos diez años, no ha seguido ni el boletín ni los periódicos. Aquí se han mencionado, tratado y decidido muchas cosas. Ésas que usted ha mencionado, ciertamente. Pero la imagen que usted ha ofrecido ha conseguido -y alguno ha mencionado la palabra- molestar, enfadar... Pues, es verdad, ha dado usted motivos para el enfado. Parece que el mundo, la democracia y el Parlamento Vasco se van a poner en marcha porque hoy han aparecido ustedes. Aquí no se ha hecho nada.

Aquí se han hecho muchas cosas. No todas habrán sido buenas, no todas habrán sido de su agrado; pero aquí existen unas normas, y cada cual presenta sus proyectos, y los votos deciden lo que desea la mayoría. Pero en su discurso ha aportado mucha demagogia, ha aportado una enorme carga de de demagogia. Habla de ética, de que en primer lugar aquí hay que hacer un pacto ético. Y todo lo realizado hasta ahora, ¿acaso lo hemos hecho al margen de la ética? ¿Qué cree usted? ¿Que aquí no existe ningún mínimo ético como para hacer política? ¿O acaso cree que no queremos aclarar y limpiar y concretar posibles casos de fraude, de corrupción? ¿Que no tenemos voluntad de aclarar?

Ha mencionado, a modo de un rosario, Max Center, Azpiegitura, las tragaperras, etcétera, Osakidetza, y también ha incluido Benta Berri. Yo le

eskatuko nizuke: Gabonetan gaude, eta Gabonetan kantatzea zilegi da, beharrezkoa da, gaizki kantatzen baldin bada ere; baina, mesedez, gai horietaz hitz egiten aritzeko, lehenbizi partitura hartu eta ikasi. Hemen ezin da edozein modutan hitz egiten hasi.

Eta, gainera, zuk zer modelo dakarzkiguzu honera? Zer modelo? Agian orain arte fede handiz mantendu dezuen totalitarismo izan den sistema hori, porrot egin duen sistema hori? Orain, Partidu Komunistakoa izanda zu -eta errespetatzen zaitut-, orain deskubritu duzu zuk ezkerreko balore bezela giza eskubideen balorea? Giza eskubideen defentsan oinarritzen da momentu honetan ezkertiar izatea? Ba, beste bakarren batzuk herri honetan, hainbat urtetan, eta nik ordezkatzen dudan alderdi honek ehun urtetan hain zuzen ere, eskubide beroriek defenditu izan ditu; gaur, hasieran, gero, momentu zailetan eta errezetan. Eta, beraz, aldarrikapen hori ozenki egin nahi baldin baduzu, edo umilago sartu edo bietako bat: kontsejupera edo jarri atzean, beste batzuk aurretik gaude eta.

Dogmatismoz josita ekarri duzu diskurtsoa, eta gero gainera aipatu dituzu, besteak beste, soldaduska, insumisioa eta gainontzeko gauzak. Besteak beste, zuek derrigorrezko soldaduskari baietza eman zenioten Madrilen, eta hemen ze gauza esan dituzu? Gero aipatzen diguzu autodeterminazio-eskubidearen gaia. Zer gertatu zaizue zuen azkeneko kongresuan? Non gelditu da? Kanpaina osoan ibili zarete esanez: "Behingoan abertzaleek esan dezatela zein den beren proiektua, zer den beraientzat autodeterminazioa". Orain arte ez al duzu jakin zein den abertzaleok autodeterminazioari buruz dugun iritzia eta kontzeptua, edo proiektua?

Eta gero, hori bai, langileria. Gauza bat esango dizut: zuek sekula santan izango ez duzuen langile-kopurua du Euzko Alderdi Jeltzaleak. Edo zer uste duzue? Euzko Alderdi Jeltzalekoak ugazabak garela, edo enpresarioak garela? Guk adina langile behin ere ez duzue izango, eta gurea bezain geldirik dagoen kopururik ere ez. Beraz, gauzak bere tokian jarri, zergatik hemen oinarritzat zerbait atera badaiteke, ondorio bezela, gure txosten eta programa honetatik, besteak beste da, hitzez hitz, "Gobernu honen ardura da sare ekonomikoak aberastasuna sortzearekin batera beronen banaketa ahalik justuena eta orekatuena lortzea eta banatzea gizartean".

Esan behar diguzu zuk zer modelo duzuen. Zuk merkatuan sinisten duzu? Bai ala ez? Nola lortzen da ondasuna, gero banatu ahal izateko gutxienez? Ze, besteak beste, gure oinarria da behar-beharrezkoa ez duenari, duintasunez bizitzeko gutxieneko hori ez duenari, ezinbestekoa duena eman behar zaiola. Baina hori ez edozein modutara: guk guztiok, hemen gaudenok eta beste askok, gehigarri edo derrigorrez beharrezkoa ez den hori sakrifikatuz. Eta horrek modelo bat erakusten dizu. Eta modelo hori, teorian ibili beharrean, praktikan jartzen dugu. Eta, gainera, ez dira nere hitzak, zuen

pediría una cosa: estamos en Navidades, y en Navidades es propio cantar, es necesario cantar, aunque se haga mal; pero, por favor, si quiere hablar de esos temas, en primer lugar coja la partitura y apréndasela. Aquí no se puede comenzar a hablar de cualquier manera.

Y además, ¿qué modelo nos trae usted? ¿Qué modelo? ¿Quizás ese sistema de totalitarismo que ustedes han defendido hasta ahora con gran convencimiento, un sistema que ha fracasado? Usted, que es del Partido Comunista -y le respeto-, ¿ha descubierto ahora el valor de los derechos humanos como un valor de la izquierda? ¿El ser de izquierdas se basa en estos momentos en la defensa de los derechos humanos? Pues, en este país algunas otras personas durante años, y concretamente durante cien años el partido al cual represento, han defendido esos mismos derechos; en la actualidad, desde sus comienzos, en el futuro, en los momentos difíciles y en los fáciles. Por lo tanto, si quiere hacer una solemne declaración, o hace una más humilde o una de dos: quédese afuera o póngase a la cola, que estamos otros antes.

Ha realizado un discurso pleno de dogmatismo, y ha hecho referencia a temas como el servicio militar, la insumisión, etcétera. Por ejemplo, ustedes en Madrid se posicionaron a favor del servicio militar obligatorio, y ¿qué cosas ha dicho aquí? Luego se ha referido al derecho a la autodeterminación. ¿Qué les sucedió en su último congreso? ¿Dónde quedó? Se han pasado toda la campaña diciendo: "Que los nacionalistas digan de una vez cuál es su proyecto, qué es para ellos la autodeterminación". ¿Es qué no han sabido hasta ahora cuál es el criterio, el concepto, el proyecto que los nacionalistas tenemos respecto de la autodeterminación?

Y después, cómo no, se ha referido a la clase trabajadora. Le voy a decir una cosa: el Partido Nacionalista Vasco tiene la adhesión de un número de trabajadores que ustedes nunca alcanzarán. ¿Pero qué se piensan ustedes? ¿Que en el Partido Nacionalista Vasco todos somos patrones, o empresarios? Nunca tendrán un número de trabajadores similar al nuestro, y menos aún un número que se mantenga tan estable como el nuestro. Por lo tanto, pongamos las cosas en su sitio, porque si de esto, de nuestro informe y de este programa se puede sacar alguna conclusión, literalmente es la siguiente: "La responsabilidad de este Gobierno consiste en lograr, además de que el tejido económico genere riqueza, que el reparto de la misma sea lo más justo y equilibrado posible, y que se distribuya de ese modo en la sociedad".

Deben ustedes decirnos cuál es su modelo. ¿Creen ustedes en el mercado? ¿Sí o no? ¿Cómo se produce riqueza para que posteriormente se pueda repartir? Porque, entre otras cosas, nosotros partimos de la base de que hay que dar lo imprescindible a quien no lo tiene, a quien no posee ese mínimo para vivir con dignidad. Pero no de cualquier manera: sacrificando todos nosotros, los que aquí estamos y otros muchos, eso que es complementario o no es imprescindible. Y eso le traza a usted un modelo. Y nosotros, en vez de quedarnos en la teoría, ponemos en práctica ese modelo. Y, además, no

alderdiko kide batenak baizik; ez dakit non daukadan zita, baina zuek daukazuen senadora batek zuei esandako gauza da nonbait, ez dakit zeini; Villalonga senadorak zuei esandakoa da -hau ere Madrileko Parlamentuan nonbait parlamentari da-: "¿Pero de qué vais -zuei-, si el PNV es tan de izquierdas o progresista, o más que nosotros, en tantos y tantos temas?". Erantzuna: "Bueno, eso es verdad, pero no lo vamos a decir nosotros". Ze lezio ematera etorri zara zu honera?

Besterik gabe, jakina da Euzko Alderdi Jeltzaleak babesa emango diola Ardantza hautagaiari. Eta, beste alderdietako lagun eta kideek aipatu duten bezela, pentsatzen dugu Gobernu sendo bat osatu dugula eta lau urtetarako bizitza izango duela, eta, bizitza edukitzeaz aparte, egitasmo zuzen eta jakin bat duela. Hori garatzen saiatuko gara, eta guk, legebiltzarkide bezela, hautagai jauna, jakin ezazu behar adinako babesa emango dizugula Parlamentu honetatikan.

Eskerrik asko.

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Egibar jauna.

Hurrena, Legebiltzarreko taldeei erantzuteko, Ardanza Garro jaunak du hitza 30 minutuz.

El Sr. **ARDANZA GARRO**: Presidente jauna, legebiltzarkide jaun-andreok. Lehenengo-lehenengo nere hitz labur-labur bat HBri eta HBko ordezkariei.

Orain dela hiru egun gutxi gorabehera uste dut izan zela prentsaurreko bat -gero Joseba Egibarrek atera du txosten hori-, eta hor galdera bat egin zitzaizuen zuei; galdetu zitzaizuen ze asmo zeneukaten aurtengo legislaturan, etortzekoa edo ez etortzekoa Legebiltzar honetara. Eta zuen erantzuna izan zen, ba, bueno, gutxi gorabehera egingo zenutela -txakurra eta katua ibiltzen diren bezala- sartu ez sartu, joan ez joan, ze azken batean zuen asmoak eta zuen helburuak zirela erakundeak deslegitimatzea. Bueno, zuen asmoa bada erakundeak deslegitimatzea, ni ez nago prest zuen konplizea izateko deslegitimazio hori aurrera eramaten.

Azken batean, gainera, gehiago esango nizuke. Normala da zuek deslegitimatzea erakundeak, ez duzuelako onartzen sistema; ez duzue onartzen sistema demokratikoa. Zuen sistema da, edo zuen borondatea inposatu, edo osterantzean aurka egin edozein tresnarekin, eta behar bada baita borroka armatuarekin ere. Eta ez hori bakarrik. Erakundeak deslegitimatzeko erabiltzen dira beste tresna batzuk ere: gezurra, erdi gezurra, erdi egiak, kalumniak; gauza guztiak erabiltzen dira. Horregatik, ni ez noa beste erantzunik ematera. Eta desiatzen nago, gainera, abertzale bezala, eta baita ere Lehendakari bezala, noski, zuek hemen ikusteko ez erakundeak deslegitimatzeko, baizik, besteak bezala, ahalegintzeko denon artean gure arazoak konpontzen eta gure Euskal Herria dagoen tokitik ateratzen edo hobetzen. Eta momentu hartan, erabaki hori hartzen duzuen momentu hartan, orduan bai, hemen edukiko

son palabras mías, sino de un miembro de su partido; no sé dónde tengo la cita, pero es algo que un senador de su partido les dijo a ustedes, no sé a quién; el senador Villalonga les dijo a ustedes -creo que es parlamentario en Madrid-: "¿Pero de qué vais -a ustedes-, si el PNV es tan de izquierdas o progresista, o más que nosotros, en tantos y tantos temas?" Respuesta: "Bueno, eso es verdad, pero no lo vamos a decir nosotros". ¿Qué lección ha venido a darnos aquí?

Acabo. Evidentemente, el Partido Nacionalista Vasco va a apoyar la candidatura del señor Ardanza. Y, tal y como han indicado los compañeros y socios de los otros partidos, creemos que hemos formado un Gobierno fuerte, que tendrá una vida de cuatro años, y que, además de vida, tiene un proyecto adecuado y concreto. Trataremos de desarrollarlo, y sepa usted, señor candidato, que nosotros, como parlamentarios, le vamos a dar el respaldo suficiente desde este Parlamento.

Muchas gracias.

**LEHENDAKARI** jaunak: Muchas gracias, señor Egibar.

A continuación tiene la palabra el señor Ardanza, por un tiempo de treinta minutos, para responder a los grupos.

**ARDANZA GARRO** jaunak: Señor Presidente, señoras y señores parlamentarios. En primer lugar unas brevísimas palabras a HB y a los representantes de HB.

Hace aproximadamente tres días creo que hubo una rueda de prensa -posteriormente Joseba Egibar ha hecho referencia al informe- en la que se les planteó a ustedes una cuestión; se les preguntó qué intenciones tenían respecto a la presente legislatura, si de acudir o no acudir a este Parlamento. Y su respuesta fue que, bueno, pues más o menos su propósito era andar entrando y saliendo, viniendo y no viniendo -como andan los perros y los gatos-, ya que en definitiva ustedes lo que pretendían era deslegitimar a las instituciones. Bueno, si lo que pretenden ustedes es deslegitimar a las instituciones, yo no estoy dispuesto a ser su cómplice en ese proceso de deslegimitación.

En definitiva, además, le diría aún más. Es normal que ustedes traten de deslegitimar a las instituciones, porque ustedes no admiten el sistema; no aceptan el sistema democrático. Su sistema consiste en imponer su voluntad o, en caso contrario, oponerse con cualquier medio, y seguramente también con la lucha armada. Y no sólo eso. Para deslegitimar a las instituciones utilizan también otros instrumentos: mentiras, medias mentiras, medias verdades, calumnias; se utiliza todo tipo de cosas. Por ello, yo no voy a contestar otra cosa. Y estoy deseando además, como nacionalista, y también como Lehendakari, evidentemente, verles a ustedes aquí no para deslegitimar a las instituciones, sino para, como los demás, intentar solucionar nuestros problemas entre todos y sacar a este País Vasco nuestro de su situación actual o mejorarlo. Y en ese momento, en el preciso

ditugu halako debate handiak eta eztabaidak eta diskusioak; nahi duzuen guztia. Tartean ni ez noa jarraitzera zuekin.

momento en que tomen esa decisión, entonces sí, aquí tendremos grandes debates y discusiones, todo lo que quieran ustedes. Mientras tanto yo no voy a continuar con ustedes.

Bien. Dirigiéndome ahora al resto de los partidos de la oposición, es decir a UA, a Izquierda Unida, al Partido Popular, yo diría que básicamente han coincidido en una serie de puntos a la hora de hacer las críticas al candidato, a la intervención de esta mañana del candidato, o incluso al programa del candidato. Yo he tratado de ir sintetizando esas críticas en una serie de bloques.

Tira ba. Eta orain oposizioko gainerako alderdiei zuzenduta, hots, UAri, Ezker Batuari, Alderdi Popularrari, nik esango nuke funtsean bat etorri direla, zenbait puntutan bat etorri ere, hautagariari kritikak egiterakoan, hautagaiak gaur goizean egin duen hitzaldiari, edo eta hautagaiak duen programari. Ahalegina egin dut kritika horiek zenbait multzotan laburtzen joateko.

Ha habido una crítica más o menos generalizada de que hemos hecho un Gobierno sin tener en cuenta la situación que se está viviendo en el país, ajeno a la crisis, a la crisis de credibilidad política, a esta situación de preocupación y de crispación. Incluso algunos me han dicho que si he hecho un discurso como si viviera dentro de una burbuja, dentro de un búnker.

Halako kritika bat izan da, gutxi gorabehera denek egin dutena, hain zuzen ere Gobernu bat egin dugula gure herrian dagoen egoera kontuan izan gabekoa, krisitik, sinesgarritasun politikoaren krisitik, aparte dagoen Gobernua, kezka eta sumindura egoera honetatik aparte dagoen Gobernua. Batzuek oraindik gehiago ere esan didate, egin dudan hitzaldiarekin anpulu baten barruan, bunker baten barruan, bizi ote naizen edo.

Se me ha dicho también que este Gobierno es más de lo mismo, que no hemos querido cambiar ni rectificar. Sobre todo en este tema han incidido fundamentalmente el representante de Izquierda Unida y el del Partido Popular. Ya hablaremos luego de todo ello.

Esan didate baita ere Gobernu hau betikoa dela, ez dugula nahi izan ez aldatu eta ez zuzendu. Gai honi ekin diote batik bat Ezker Batuaren ordezkariak eta Alderdi Popularraren ordezkariak. Gero hitz egingo dugu horretaz guztiaz.

También se me ha acusado de que, sí, de que yo he hablado de estabilidad esta mañana y de que, efectivamente, podemos tener aquí una estabilidad, una estabilidad aritmética, pero que no hay tal estabilidad, e incluso se me ha dicho que dentro del propio Gobierno tengo la inestabilidad, que tengo una bomba de relojería, probablemente con tiempo retrasado (supongo que se refería al Partido Socialista).

Salaketa ere egin didate zera, bai, egonkortasunaz hitz egin dudala hemen gaur goizean eta, jakina, beharbada hemen badugula halako egonkortasuna, halako egonkortasun aritmetikoa, baina ez dela halako egonkortasunik, eta esan didate baita ere Gobernuaren beraren barruan daukadala ezegonkortasuna, erloju-bonba bat daukadala, beharbada denbora atzeratua duena (Alderdi Sozialistaz ari zelakoan nago).

También se ha dicho insistentemente que ésta es una coalición donde lo único que se ha hecho ha sido un reparto de poder, no sólo además un reparto de poder en el Gobierno, sino también en las Diputaciones y en los Ayuntamientos.

Esan dute baita ere, ekin eta ekin esan ere, koalizio honetan boterea banatu baino ez dela egin, ez bakarrik gainera boterea Gobernuan banatu, baita diputazio eta udaletan ere.

Se nos ha dicho también, y se me ha dicho, que éste es un programa vacío, donde hay muchas intenciones; que esto parece, utilizando ahora las fechas navideñas, una carta a Olentzero.

Esan digute baita ere, eta esan didate, programa hau hutsik dagoela, asmo asko dituela; honek, orain Gabonetan gaudenez gero, Olentzarorentzako eskutitza dirudiela.

Bueno, también algún grupo se ha empeñado en decir que éste es un programa de derechas, liberal, etcétera, etcétera. También se ha hecho alguna apelación al tema de Ajuria Enea, del acuerdo de Ajuria Enea (eso lo tocaré aparte).

Tira, talderen bat ere izan da esaten tematu dena hau programa hau dela eskumatarra, liberala, eta abar, eta abar. Ajuria Eneko gaia ere aipatu dute, Ajuria Eneko hitzarmena (horretaz bakarka ihardungo dut).

Bueno, después de haber escuchado todo eso, al final la impresión que he tenido es: bueno, aquí la gente dice que no ha leído el programa; uno tiene la impresión de que lo han leído, pero tal vez algún trozo, no en su totalidad. Bueno, de entrada decirles que lamento no haberles enviado el programa. Nosotros firmamos el programa a principios de semana, el lunes, e inmediatamente lo hicimos público, lo repartimos a los

Beno, hori guztia entzun eta gero, azkenean honako inpresio hau edo izan dut: hemen jendeak dio ez duela programa irakurri; bat irakurri dutelakoan dago, baina zatiren bat beharbada, ez osorik. Hara, lehenengo eta behin esango dizuet damu dudala programa zuei ez bidali izana. Guk programa astearen lehenengoetan sinatu genuen, astelehenean, eta berehala jendaurrera atera genuen, komunikabideei banatu genien. Eta, inola

medios de comunicación. Y, desde luego, si en aquel momento hubiera tenido el reflejo de que el reparto del programa a todos los grupos políticos en directo, inmediato, así con un propio, hubiera servido para haber resuelto todos estos problemas, pues seguramente nos hubiéramos ahorrado una grandísima parte del debate.

Porque desde luego en el debate que aquí he estado yo escuchando, cuando se estaba diciendo que aquí no hay... o sea, que se está ya cuestionando el Estado de bienestar, que estamos poniendo en cuestión esto, lo otro..., digo: "Bueno, pero esto..." O que no estamos hablando de educación, o de temas sociales, o de temas laborales, que no tenemos conciencia del desempleo, del paro, etcétera, he dicho: "Bueno, pero es que esta gente, pues, realmente no ha leído". ¡Ojalá hubiera tenido el reflejo suficiente! En otra ocasión vamos a procurar mandárselo.

Pero, en cualquier caso, señor Mayor Oreja, usted sí lo tuvo. Usted sí lo tuvo porque usted expresamente pidió. La impresión que saqué cuando usted pidió y no los demás fue la siguiente: que los representantes de los partidos de aquí, como aquí a la prensa se le repartió el programa, lo tendrían inmediatamente, y que usted, al estar en Madrid, pues, naturalmente necesitaría que el programa se lo mandaran a Madrid. Me dio esa impresión. Pero me pareció también muy bien, dije, porque ustedes al fin y al cabo pidieron el programa a la Lehendakaritza. (*Murmullos.*)

Bien. Dicho esto, al final, y ante esa acumulación, bueno, de críticas -por supuesto totalmente legítimas, cómo no-, yo lo que quiero es recordar una serie de cosas. La verdad es que a mí la intervención me la han dejado ya muy fácil, o no sé si decir muy difícil, tanto el representante socialista como el representante nacionalista, porque han dado respuesta amplia a lo que venían ustedes diciendo. Pero sí quiero recordarles una cosa.

Yo el día 2 de noviembre inicié una ronda de conversaciones con todos los partidos políticos, con todos los partidos políticos, por entender que había que sondear a cada uno de los partidos políticos para ver cuál era en definitiva su talante. De entrada, del único partido del que tenía información, porque lo había hecho público, de su voluntad en principio a plantearse una participación en el Gobierno, era del partido Eusko Alkartasuna. Los demás, pues, no sabíamos exactamente cuál era su posición.

Bien. A partir de esas conversaciones quedó claro que UA no tenía intención de entrar al Gobierno. En la misma conversación me dijeron que ellos no tenían voluntad de entrar en el Gobierno, que no era ése su papel, que ellos con un Gobierno centralista no tenían nada... que su Gobierno fundamentalmente era el tema de Álava. Bueno, hablamos de muchas cosas, yo diría que prácticamente de las mismas que hoy aquí usted me ha ido planteando, básicamente las mismas: modelo de país, el tema de la subsidiariedad, etcétera. Y la verdad es que creo que en este programa estamos hablando con bastante intensidad de algunas de esas preocupaciones

ere, baldin eta une hartan erreflexua izan banu programa talde politiko guztiei zuzenean, berehala, mandatari batekin-edo banatuz gero horrek arazo hauek guztiak konpontzeko balio izango zuela, bada seguru asko eztabaidaren zati handi-handi bat aurreztuko genuen.

Zeren, jakina, ni hemen entzuten egon naizen eztabaidan, esaten ari zirenean hemen ez dagoela... hau da, batzuk hasita daudela ongizate-estatua zalantzan jartzen, hau eta bestea ari garela zalantzan jartzen..., diot: "Baina, baina hau..." Edo ez garela hezkuntzaz hitz egiten ari, edo gizarte-gaiez, edo lan-gaiez, ez gaudela jabeturik zer den lanik eza, langabezia, eta abar, esan dut: "Baina, baina jende honek, zera, irakurri ere ez du egin". Izango ahal nuen, baldin baitere, behar besteko erreflexua! Saiatuko gara beste aldi batean bidaltzen.

Baina, edonola ere, Mayor Oreja jauna, zuk eduki zenuen. Zuk, ordea, eduki zenuen, berariz eskatu zenuelako. Honako irudipen hau atera nuen zuk bai eta besteek ez eskatu zutenean: hemengo alderdien ordezkariek, nola hemen prentsari programa banatu baitzitzaien, berehala edukiko zutela, eta zuk, Madrilen izanda, bada, argi dagoenez programa Madrila bidali beharra edukiko zenuela. Irudipen hori izan nuen. Baina oso ondo ere iruditu zitzaidan, esan nuen, izan ere zuek, dena dela, programa Lehendakaritzari eskatu zeniotelako. (*Marmarrak.*)

Tira ba. Hori esanik, azkenean, eta hainbeste kritika pilatu eta gero -zer esanik ez, zilegizkoak oso denak, nola ez-, nik hainbat gauza gogoratu nahi ditut. Egia esan niri eskuhartzea dagoeneko oso erraza utzi didate, oso zaila esan beharko nuke beharbada, nola ordezkari sozialistak hala ordezkari abertzaleak erantzun zabala eman diotelako zuek esan duzuenari. Baina gauza bat gogoratu nahi dizuet hargatik.

Nik azaroaren 2an halako elkarrizketa-txandari ekin nion alderdi politiko guztiekin, alderdi politiko guztiekin, uste nuelako alderdi politiko guztiak zundatu beharra zegoela bakoitzak zer jarrera zuen ikusteko. Lehenengo eta behin, informazioa alderdi bati buruz baino ez neukan, jendaurrean hala esan zuelako, alegia berez Gobernuan parte hartzeko prest egon litezkeela esan zuelako; Eusko Alkartasuna alderdiari buruzko informazioa neukan. Besteek, ostera, ez genekien zehatz zer jarrera zuten.

Tira ba. Elkarrizketa horietatik aurrera garbi egon zen UAk ez zuela Gobernuan sartzeko asmorik. Elkarrizketa berean esan zidaten berek ez zutela Gobernuan sartu nahi, hori ez zela beren zeregina, berek Gobernu zentralista batekin ez zutela ezer... beren Gobernua batik bat Arabaren gaia zela. Tira ba, autu asko erabili genituen, egia esan gaur hemen plazaratu dizkidazun autu berberak esango nuke nik, autu berberak batez ere: herri-eredua, subsidiariotasuna, eta abar. Eta nik uste dut, egia esan, programa honetan nahiko sakon eta luze dihardugula zeure hitzaldian plazaratu dituzun kezka horietako batzuez: herri-ereduaz,

que usted ha planteado en su intervención: del modelo de país, de la subsidiariedad, de la ventanilla única, etcétera. Todo ese compromiso lo estamos asumiendo ya en el programa, yo creo que eso está bastante claro.

Bien. Pero UA dijo que no era su voluntad, su intención, entrar en el Gobierno. Es decir, que si yo hubiera estado esperando a que UA hubiera aportado alguna solución para la estabilidad, para la gobernabilidad de este país, desde luego hoy es el día que seguiría esperando. Eso es así. Salvo la otra fórmula que propuso la señora Enriqueta, que era la de que "hagamos todos una coalición, todos contra el Partido Nacionalista Vasco", que tampoco sé si ustedes han gestionado ese intento. Lo anunciaron, pero no sé si lo han gestionado posteriormente.

De todas formas, la conversación que mantuvimos fue una conversación amable, correcta, igual que ha sido hoy su intervención en este foro, y por tanto se lo agradezco.

Bien. La conversación con IU... Bueno, a usted hoy le han dicho muchas cosas. Yo realmente he empezado a coger nota de algunas de las cuestiones que usted iba planteando al principio, hombre, por aquello de que tengo que seguir lo que van diciendo los unos o los otros. Y, desde luego, cuando usted ha empezado inicialmente haciendo aquí la presentación de IU, que ustedes son seis escaños, que ustedes tienen 93.000 votos, que ustedes son aquí la izquierda, que por primera vez va a venir la izquierda, realmente me sonaba todo ese planteamiento, porque es prácticamente el mismo que me hizo en la conversación.

Es decir, ustedes no querían estar en el Gobierno. Ustedes tienen vocación de Gobierno, pero vocación de Gobierno para mandar, para desde el Gobierno imponer en una sociedad esas tesis suyas, que realmente son tesis hoy en día de burbuja. No sé dónde se puede aplicar o dónde se aplica ese tipo de tesis. Creo que estamos viviendo o ustedes viven en otro mundo distinto.

Bien. Entonces hoy ha hecho aquí la presentación de IU. Ha visto usted que más de uno le ha dicho que ha molestado la forma en que usted ha hecho esa presentación. La impresión que yo tenía era: hombre, aquí nos viene, bueno, pues, una persona que accede a la política en este momento, que tiene no por primera vez presencia parlamentaria, porque Izquierda Unida en su día creo que ya la tuvo también aquí, en la primera legislatura. Pero la impresión que he tenido, efectivamente, ha sido que, para usted, aquí viene a demostrarnos que ahora empieza la política en este país, que ahora va a empezar a hacerse las cosas en este país. Y en este país, señor Madrazo, llevamos ya muchos años haciendo cosas, mejor o peor, con mejor fortuna o con peor fortuna, pero desde luego llevamos haciendo ya mucho tiempo... No empieza la política ahora porque Izquierda Unida en este momento venga al Parlamento Vasco.

Bien. Usted ha empezado luego a hacer ya todas las críticas que he ido antes también enumerando: que

subsidiariotasunaz, lehiatila bakarraz, eta abarrez. Konpromiso hori guztia programan bertan hasita gaude jasotzen, hori nahiko garbi delakoan nago.

Tira ba. Baina UAk esan zuen ez zuela Gobernuan sartzeko gogorik, Gobernuan sartzeko asmorik. Hau da, ni zain egon banintz UAk irtenbideren bat noiz ekarriko herri honen egonkortasunerako, herri honen gobernagarritasunerako, zalantza barik gaur da eguna oraindik ere zain egongo nintzatekeena. Hori hala da. Non ez den Enriqueta andreak proposatu zuen beste formula, hau da, "egin dezagun denok koalizio bat, denok Euzko Alderdi Jeltzalearen aurka", eta horretan ahalegindu zareten ere ez dakit. Jakitera eman zenuten, baina ez dakit gerora aurrera bultzatu duzuen.

Edonola ere, izan genuen elkarrizketa elkarrizketa atsegina izan zen, egokia, foru honetan egin duzun hitzaldia bezalakoa, eta eskerrik asko beraz.

Ederki. EBrekin izandako elkarrizketa... Hara, zuri gaur gauza asko esan dizkizute. Ni, egia esan, oharrak hartzen hasi naiz hasieran plazaratu dituzun gauzei buruz, hain zuzen ere batzuek eta besteek diotenari jarraitu beharra daukadalako. Eta, jakina, hasi zarenean, hasieran hasi ere, hemen Ezker Batua aurkezten, sei eserleku zaretela, 93.000 boto dauzkazuela, hemengo ezkerra zaretela, ezkerrak hona lehenengoz etorri behar zuela, egia esan ezaguna nuuen ikuskera hori guztia, izan ere elkarrizketan egin zenidana bera zen eta.

Hau da, zuek ez zenuten Gobernuan izan nahi. Zuek gobernu-bokazioa duzue, baina gobernu-bokazioa agintzeko, Gobernutik gizarte batean zeuen tesi horiek ezartzeko, gaur egun ur-anpuluko tesiak direnak egia esan. Ez dakit non aplika litezkeen edo non aplikatzen diren horrelako tesiak. Uste dut bizi garela edo eta zuek bestelako mundu batean bizi zaretela.

Ederki. Hortaz gaur EB aurkeztu egin duzu hemen. Ikusi duzun moduan, batek baino gehiagok esan dizute mingarria izan dela aurkezpena egiteko erabili duzun modua. Nik inpresio hau nuen: hara, hor datorkigu, bada, gizaseme bat politikara oraindik orain iritsitakoa, Legebiltzarrean presentzia duena ez lehenengoz, zeren Ezker Batua bere egunean hemen ere izan zela uste baitut, lehenengo legegintzaldian, hain zuzen. Baina inpresioa izan dut, bada, zuretzat, zu hor ote zatozen hona politika herri honetan orain hasi dela guri erakustera, orain hasiko direla gauzak egiten herri honetan. Eta herri honetan, Madrazo jauna, urte asko daramatzagu gauzak egiten, hobeto edo okerrago, zorte hobearekin edo zorte txarragoarekin, baina inola ere aspaldidanik gabiltza gauzak egiten... Ez da, bada, politika orain hasi Ezker Batua une honetan Eusko Legebiltzarrera datorrelako.

Ederki. Gero kritikak egiten hasi zara, hain zuzen ere lehen banan-banan eman ditudan kritika guztiak: bi

dos meses de plazo esto ha sido una situación indignante, un mero reparto de poder, que más que un Gobierno es un reino de taifas, que no es lo mismo estabilidad que una mera suma aritmética, que esto es más de lo mismo, puro continuismo, que éste es un programa sólo de intenciones cara al Olentzero, que no tenemos credibilidad absoluta, etcétera, etcétera, etcétera. Y todo eso poniéndolo por delante, que usted lo dice, con seis escaños y 93.000 votos.

Pues, mire usted, realmente me parece indignante, insultante esa forma de dirigirse a una coalición de partidos que tiene 42 escaños y que tiene 600.000 votos. Yo no sé si esos 42 escaños y 600.000 votos se merecen todos esos apelativos, todas esas consideraciones que usted les ha dirigido en esta Cámara. Y algunas manifestaciones que les han hecho aquí realmente yo las comparto.

Pero, claro, lo curioso del caso es que, hechas todas esas críticas, al final ustedes claramente me manifestaron también que no estaban dispuestos a compartir un determinado esfuerzo de gobernabilidad en este país. Tantísimos problemas tenemos en este país, usted mismo ha estado contrastando, usted creo que me decía que estaba en la burbuja (o no sé si usted era el del búnker), con todas las dificultades, con todas las crisis... ¡ah! pero usted quería quedarse en la oposición. Para ustedes, estar en el Gobierno era sólo para poder mandar desde el Gobierno y poder llevar adelante desde el Gobierno su proyecto, pero no para estar en el Gobierno como un mero apéndice con dos Consejerías. ¡De eso, ni hablar! Ustedes, o a mandar o, si no, a la oposición.

Si todos hubiéramos hecho eso, señor Madrazo, si todos tuviéramos esa filosofía política, pues, hoy aquí estaríamos todos mirándonos los unos a los otros, los unos a los otros. ¡Y a ver quién resuelve los problemas de este país! ¡Y a ver quién le saca las castañas del fuego a este país! Ésa hubiera sido la situación.

Bien. Por tanto, con esto al final lo que quiero decir es que aquí ha habido tres partidos que han asumido el riesgo, que han asumido los riesgos, con todas las dificultades que esto podía tener, que han dado el paso adelante, y habiendo dado el paso adelante, pues, nos hemos comprometido en este acuerdo de coalición.

Bien. Yo quiero también recordar cómo fue todo el proceso, señor Mayor Oreja, con el PP, claro. Usted aquí nos ha ido desarrollando unas teorías curiosísimas. O sea, "el PNV siempre alcanza y asegura su presencia hegemónica en todas las instituciones, en el Gobierno, en las Diputaciones, en los Ayuntamientos". Pero ¡si ustedes llevan también mucho tiempo sondeándonos a ver qué tal nos arreglaríamos con ustedes! Es que no sé a qué vienen todo ese tipo de denuncias, ¿no? Que hacemos todo esto además al margen de ideologías, que sólo pretendemos al final la hegemonía... Realmente, o sea, me molesta que se planteen las cosas de esta manera.

hilabeteko epea, hori haserratzeko moduko egoera izan dela, botere-banaketa hutsa, Gobernua barik taifa-erreinua dela, ez dela berdin egonkortasuna eta batuketa aritmetiko hutsa, hori betikoa dela, kontinuismo soila, hau Olentzarori begira egindako asmo-programa soila dela, ez daukagula inolako sinesgarritasunik, eta abar, eta abar, eta abar. Eta hori guztia aurretik ipinita, zeuk diozu-eta, sei eserleku eta 93.000 botorekin.

Bada, begira ezazu, egia esan haserratzeko modukoa iruditzen zait, iraingarria, horrela hitz egitea koalizio honi, 42 eserleku eta 600.000 boto dauzkan alderdi-koalizio honi. Ez dakit 42 eserleku horiek eta 600.000 boto horiek halako apelatibo horiek guztiak merezi ote dituzten, Biltzar honetan eskaini dizkiezun ohar horiek guztiak merezi ote dituzten. Eta ni bat nator, benetan bat etorri ere, hemen zuei esan dizkizueten zenbait gauzarekin.

Baina, gauzaren bitxia!, kritika horiek guztiak eginda, zuek azkenean argi eta garbi esan zenidaten, berebat, ez zeundetela prest herri honetan halako gobernagarritasun-ahalegina konpartitzeko. Hainbat eta hainbat arazo dauzkagu herri honetan, zu zeu ibili zara erkatzen, zeuk uste dut esaten zenidala ur-anpuluan nengoela (edo eta ez dakit zeuk esan duzun bunkerrarena), zailtasun guztiekin, larrialdi guztiekin... bai, baina zuk oposizioan geratu nahi zenuen! Zuentzat, Gobernuan egotea zen bakar-bakarrik Gobernuan egon Gobernutik agindu ahal izateko eta zeuen egitasmoa Gobernutik aurrera eramateko, baina ez Gobernuan eranskin soil baten moduan bi sailekin egoteko. Hori, ezta hurrik eman ere! Zuek, edo agintzera edo, ostean, oposiziora.

Denok egin bagenu hori, Madrazo jauna, denok izango bagenu filosofia politiko hori, gaur hemen denok bata besteari begira egongo ginen, bata besteari begira egongo ginen. Eta ea nork konpontzen dituen herri honetako arazoak! Eta ea nork ateratzen dizkion herri honi babak eltzetik! Egoera hori izango genuen hemen.

